

# HALA DZIPO

## HERRI MUSIKA ESKOLA

## 2025 / 2026

## IKASTURTEA

"MUSIKAREN BIDEZ INGURUNEA ERALDATZEN"

HERRI MUSIKA ESKOLA
www.haladzipo.org

944.385.541 688.859.202

haladzipo@haladzipo.org

Barakaldo CIUDAD-HIRIA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Hala Dzipo Kultru Elkartea orain 30 urte baino gehiago sortu zen Barakaldo herrian. Elkartearen helburu nagusia hasiera batetik herri folklorea ezagutu, zabaldu eta berrakuratzea izan da, kultur adierazpide nagusiena bitarte hartzu: Euskal Musikaren irakaskuntza.

Urte luze hauetan zehar gure agitasmoa hainbat jarduera ezberdinen bidez garatu dugu, guztiak euskara eta eusakl kulturarekin lotura estua izanik.

Gure lana hiru esparrutan banatzen dugu: hezitzailea, sortzailea eta hedatzailea.



## ESPARRU HEZITZAILEA: HERRI MUSIKA ESKOLA OFIZIALA

Gaur egun gero eta garrantzitsuagoa da musikaren presentzia gizartean, hezkuntzan eta gizakiaren garapenean. Zentzu henetan behar-beharrezkoa da Musika Eskolen jarduera.

Irakaskuntza ez arautuaz pentsatzeak, ez du esan nahi kalitate gabeko irakaskuntza-eredu batez ari garenik; alderantziz, adin muga barik, musika bera ulertu eta ikasi ahal izateko ikasketen planak diseinatu eta egokitzen ditugu. Pretsonak, prozesuak,eta zerbitzua gero eta hobea egiten duten baliabideak kudeatzen dituen eskola da Hala Dzipo Musika Eskola.

Gure hezkuntza proiektuak, gainera, euskararen erabileraren eta sustapenaren aldekolan handia egiten du,  gaur egun, eskolako jarduera guztiak euskera hutsean garatzen ditugularik.

## ESPARRU HEDATZAILEA: KULTUR EKIMENAK

- Musika agerraldiak.
- Hainbat herri eta auzoetako jaietan parte hartzea.
- Kultur arloko trukaketak.
- Irteera kulturalak.
- Eskolaz kanpko jaerdueral (extraeskolarra).
- Kultur arloko tailerrak.
- Kontzertua didaktikoak, …
- Udaleku Musikalak.
- ….

## ESPARRU SORTZAILEA: SORMEN LANA

Hala Dzipo Kultur Elkarteak orain dela urte batzukekin zion esparru hau garatzeari, gaur egun euskal produkzioen barruan leku garrantzitsua lortu duelarik.

Gaur egun, gure material didaktiko Euskal Herriko hainbat eskoletan erabiltzen dira, harrera oso ona izan datelarik. Bestalde, musika produkzio eta ikuskizun eszenikoen lanketan ere buru belarri sartu gara, herri musika eta kultura plazaratzeko eta suspertzeko xedearekin.

Hala Dzipo izena eta kultur hedapena Euskal Herriko leku guztietara eramatea da gure helburua.

# MUSIKA ESKOLARI BURUZKO INFORMAZIOA

## 1. IKASTAROARI BURUZKO INFORMAZIOA

Ikasturtea ikasturtea da, eta, beraz, eskolak irailetik ekainera bitartean egiten dira, dagokion eskola-egutegiarekin.

Matrikula egiteak ikasturte osoan alta emanda egoteko konpromisoa dakar.

Ikastaroaren kostua 10 hilekotan banatuta dago (irailetik ekainera), ikasleei eta familiei ordainketa errazteko

## 2. IZENA EMOTEA

- MATRIKULAZIO-ALDIA
  Ikasturteko azken hiruhilekoan egingo da, apiriletik ekainera bitartean, hurrengo ikasturterako.

  - EPEZ KAMPO ESKOLARATZEA: matrikulazio-aldiaren ondoren.
  Ikasturtean zehar, leku librea dagoen bitartean, matrikulak irekita iraungo du.

- UZTEAK
  Ezinbesteko arrazoiengatik izan beharko dira.

  Bajak benetakoak izan daitezen, bulegoan aldez aurretik jakinarazi beharko da, hilaren 25a baino lehen, hurrengo hilabetea ez kobratzeko.

## 3. KUOTAK ORDAINTZEA ETA ITZULTZEA

- ORDAINKETAK: banku-helbideratzearen bidez egingo dira, ikasleek emandako kontuan.

  - URTEKOAK
    - Matrikula eta gastu didaktikoak: uztailean zordunduko da zenbatekoa.

    - Hala Dzipo Lagun: zenbatekoa abenduan zordunduko da, dagokion abisua eman ondoren.

***Ikastaroa hasi ondoren eta abenduaren 22ra arte egindako matrikulen kasuan, zenbateko osoa ordainduko da. Data horren ondoren, % 60 ordainduko da.

***Bajaren kasuan, betiere urriaren 1a baino lehen egiten bada, matrikula-kuotaren zenbatekoa itzuliko da.

- HILEAN BEHIN (ikastaroaren hainbanaketa)
Klaseak/Gaiak: karguak irailetik ekainera bitartean egingo dira, hilaren 1etik 5era bitartean. Irailean, 15etik 20ra bitartean, karguari ekingo zaio.

- ORDAINAGIRIAK ITZULTZEA
Ordainagiriak arrazoirik gabe itzultzen badira (dirurik ez badago, ezereztu egiten badira edo kontuak aldatzen badira), itzultzeko banku-gastuei dagokien zenbatekoa ikasleari kargatuko zaio.

## 4. DATU PERTSONALEN ALDAKETA

Zuzenean telefonoz edo e-mailez egin ahal izango da.
Helbideratzeko banku-kontuaren aldaketak ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dira, ordainagiriak itzultzea saihesteko.

## 5. ESKOLA EZEREZTATZEA ETA BERRESKURATZEA

- NOIZ BERRESKURATUKO DIRA, EZ EMANDAKO ESKOLAK?

- Irakaslea agertzen ez denean edo irakasleak berak ezeztatuta.
  (errekuperatu nahi izanez gero irakasleekin hitz egin behar da)

  *** Hiruhilekoan zehar berreskuratu ezin bada, ikasleak emandako kontu-zenbakiare,n zati proportzionala ordainduko da.

- NOIZ EZ DIRA BERRESKURATUKO, EZ EMANDAKO ESKOLAK?

- Ikasleak berak ezeztatzen duenean.
- Eskola egutegian, lan ezako ihardunaldia bailitzan agertzen denean.

# MAIZKO GALDERAK

## - Nolakoa da eskolako dinamika?

Eskolan banakako zein taldeko klaseak eskaintzeaz gain, hainbat eta hainbat dira eskola ordutik kanpo egiten ditugun aktibitateak, klaseak bezain garrantzitsuak direnak.Hala Dzipotik, klase ordutik haratago doazen ekintzak bultzatzen ditugu, hala nola, entzunaldiak, musika kalean, antzerki eta zinea, irteer kulturalak, kontzertauk, ...
Modu honetan, disziplina artistiko guztiak elkartzen dituen proiektua bideratzen dugu, ikasleareki arte eszenikoen kontzeptu globala landuz.

## - Beharrezkoa da musika tresna lehenengo momentutik erostea?

Hala Dzipok zure eskura jarriko du hasiera baten behar duzun materiala, baita eskola ordutegitik kanpo ensaiatzeko espazioa ere. Ondoren, irakaslearekin adostuko duzu tresna erosteko unerik egokiena zein izango den.

## - Zertan datza "Hala Dzipo lagun" izatea?

Hala Dzipo Musika Eskolan matrikula egiten duzun unean, "Hala Dzipo lagun" izatera pasako zara automatikoki. Zure elkarpenari esker, Hala Dzipo ekimena bultzatuko duzu etaa aldi berean, modu altiboan parte hartuko duzu proiektuko dinamikan, hainbat abantailari esker: material didaktikoetan beherapenak, ekimen kulturaletarako gonbidapenak, zozketak, ...

## - Non bidera ditzaket nire zalantzak, proposamenak, ...?

Bulegoa eta irakasleak zure esanetara daude egin ahal izan dezazun.

# IKASTURTEA 2025 – 2026 CURSO

## Hileko Ordainketak - *Pagos Mensuales*

### IZAKI MAGIKOAK
3 urtetik 6 urtera — *de 3 a 6 años*

| | |
|---|---|
| 3 urte (2022) / 4 urte (2021) | Musika 35 € |
| 5 urte (2020) | Musika + Hastapenak 44 € |
| 6 urte (2019) | Musika + Errotazioa 60 € |

### ZUHAITZAK
7 urtetik 12 urtera — *de 7 a 12 años*

| | |
|---|---|
| 7 urte (2018) | MUSIKA + MUSIKA-TRESNA 77 € |
| 8 urte (2017) | |
| 9 urte (2016) | |
| 10 urte (2015) | |
| 11 urte (2014) | |
| 12 urte (2013) | |

### IKASKUNTZA MUSIKALA
13 urtetik aurrera — *a partir de 13 años*

| Tresnak / Ikasgai 54 € *Instrumentos / Materias* | | Taldeak 23 € *Conjuntos* |
|---|---|---|
| Alboka | Musika | KONBOAK ETA TALDEAK |
| Bateria | Panderoa | |
| Baxu Elek | Pianoa | |
| Dultzaina | Trikitixa | KONTSULTATU |
| Gaita Galega | Txalaparta | |
| Gitarra | Txirula | |
| Informatika | Txistua | |

**Tresna + Taldea 60 €** *Instrumento + Conjunto*

## Urteko Ordainketak - *Pagos Anuales*

| | | |
|---|---|---|
| Matrikula eta gastu didaktikoak | 35 € | *Matrícula y gastos didácticos* |
| Urteko "HalaDzipo Lagun" kuota | 20 € | *Cuota anual "Hala Dzipo Lagun"* |

HalaDzipo
HERRI MUSIKA ESKOLA
www.haladzipo.org